21 / larunbata 11:00 San Migel plazan

TIPI TAPA BEREZIA: BELAUNALDI ARTEKOA

EGUZKI TXOKO jubilatuen elkarteak eta Gazte Asanbladak elkarrekin antolatutako ibilalditxoa.

Ibilaldia, hamaiketakoren bat eta sor daitekeen beste ekintzaren bat partekatuz, elkar ezagutu, elkarrengandik ikasi eta elkarrekin disfrutatzeko helburuarekin.

(EGUZKI TXOKO jubilatuen elkarteak eta Gazte Asanbladak antolatuta)

A25 / asteazkena Ikastolan eta herrian

INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Ikastolan hainbat ekintza egingo dira egun horren inguruan sentsibilizazioa sustatzeko. Udalarekin eta herriko beste eragileekin elkarlanean prestatutako egitaraua antolatuko da. Gainera, arratsaldean, Irura Moretuz taldeak antolatuta, ekitaldia egingo da.

- Euskaraz
- Publiko guztia

(Ikastolak, Irura Moretuz emakume taldeak eta udalak antolatuta)

28 / larunbata 14:00 Irurako ostatuan

BERTSO BABARRUN BAZKARIA

Aurrez txartela erosi behar da.

- Euskaraz
- Publiko guztia

(Irura Bizi Elkarteak antolatuta)

50. urteurrena
MATERIAL ESKAERA

Irurako Ikastola

TAMAINA HANDIKO HONDAKINAK

Edukiontzien ondoan utzi daitezke **hileko 1. eta 3. ostiral bezperan**, 20:00etatik 22:00etara.
Garbigunera ere eraman daitezke. Etxetresna elektriko berria erosiz gero, zaharra dendan ere utz daiteke.
Azaroak 5
Azaroak 19

IRURA ESKURA APLIKAZIOA

Gure herriaren berri uneoro eskura eta modu erosoan izatea ahalbidetzen du.
Oso erraza da aplikazioa mugikorrean instalatzea. Android sistemako mugikorretan Play Store-n sartu behar da, Iphone-etan, APP Storean. Bi kasuetan, Irura hitza idatzi bilatzailean.
Aplikazioan klik egin eta deskargatu.

NOTA
Toda la información en castellano en **www.irura.eus** o en la **oficina de cultura**

euskara

Irurako udala

kultur mahaia

castellano

irura AISIALDIRAKO 2026 GiDA

AZAROA

4 / asteazkena **11:00** San Migel plazan

TIPI TAPA: OSASUNA ETA HARREMANAK SUSTATZEKO EKIMENA

Adinekoak sasoian egoteko aukera bikaina.
65 urtetik gorako pertsonek ibilbide bat egiten dute ariketa fisikoa bultzatu eta elkarren arteko harremanak sustatzeko. Ibilbidea hamaiketako batekin amaitzen da.
Nahi duenak 10 minutu lehenago luzatze ariketak egiteko aukera izango du.

· +65 urte

9 / astelehena **18:00** Udaletxeko ganbaran

MUSIKA SAIO IREKIA

Loatzo musika eskolak +65 kolektiboarentzat 45minutuko musika klase praktiko bat egingo du ate ireki modalitatean.
Helburua +65 urtekoen artean musika klaseak emateko taldea sortzea da.

· +65 kolektiboarentzat

(Loatzo musika eskolak antolatuta)

2027KO EGUTEGIRAKO ARGAZKI-LEHIAKETA

2027ko egutegia osatzeko argazki-lehiaketarako gaia **´KIROLA IRURAN ´** izango da.
Urtero bezala, adin guztietako herritarrek parte hartu ahal izango dute lehiaketan.
Aukeratutako argazki-egileek 30€ko erosketa-bonoa irabaziko dute. Lehiaketaren oinarriak **www.irura.eus** webgunean aurkituko dituzue. **Animatu!**
Parte hartzeko azken eguna azaroak 11.

(Irura Bizi elkarteak antolatuta)

13 / ostirala **18:00** Udaletxeko ganbaran

GOAZENEKO LEHEN KAPITULUAREN AURRESTRENALDIA

Goazen telesail arrakastatsuaren 13. denboraldia azaroan estreinatuko da telebistan, baina lehen kapituluaren aurrestrenaldiaz gozatzeko aukera izango da azaroaren 13an Iruran.

· 6 urtetik gorakoentzat
· Euskaraz

14 / larunbata **12:00**etatik aurrera Gazte Alaiak elkartean

K.K.J. GAZTE ALAIAK ELKARTEAREN EGUNA

Urte hau berezia da Gazte Alaiak Elkartearentzat: 50 urte bete ditu. Urteurren hau elkarrekin ospatuko dugu bazkideok, hamaiketakoa, toka txapelketa eta bazkari ederrarekin:
12:00 Hamaiketakoa
13:00 Toka txapelketa
14:30 Bazkaria
Parte hartzeko, bazkideek elkartean dagoen paperean eman behar dute izena azaroaren 6a baino lehen.

· Bazkideentzat

(K.K.J. GAZTE ALAIAK Elkarteak antolatuta)

17 / asteartea **17:15** Herri eskolan

"BERDINTASUNA MAITE DUGULAKO" IPUIN KONTAKETA INES BENGOAREKIN

Berdinak gara, ezberdinak gara.
Berdintasuna maite dugulako norberak bere buruari eta beste pertsona guztiei zor dien errespetuaz hitz egiten duten ipuin dibertigarriak dira. Genero ikuspuntua duten ipuinak dira.

· 4-8 urte bitarteko haurrentzat

20 / ostirala **16:30** Frontoian

HAURREN ETA NERABEEN ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Haurren eta Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Eguna ospatzeko jolas eta puzgarriak egongo dira frontoian.

· Haur eta nerabeentzat